



xapO

2011ko maiatza - 10. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria

xapOren hamargarrena Urte askotarako!





zenbaki honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea
eta Goizuetako Udalaren
Euskara Zerbitzua

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com



aurkibidea

- **3**..... Aurkezpena
- **4-5**..... Atzera begira. 1992
- **6-8**..... Goizuetako hilabete
kulturala 2010
- **9-11**..... Orreagatik Compostelara
oinez
- **12**..... Euskararen zabalera
- **13-16**..... Goizueta "Leotik beitzuz"
- **17-19**..... Guraso elkartea
- **20-23**..... Goizuetako Gazte
Asanbladak 20 urte
- **24**..... Denborapasak
- **25**..... Ezetz asmatu
- **26**..... Ipuin erotikoa
- **27**..... Inkesta
- **28**..... Zure banda





Xaporen hamargarrena

Xaporen lehendabiziko zenbakia egin genuenean, 2002. urtean, honelaxe idatzi genuen aldizkariaren aurkezpeneko testuan:

“... Nolanahi ere, kontrarik agintzen ez badiguzue behintzat, aurrerago ale gehiago argitaratzen saiatuko gara, Goizuetako herriaren eta goizuetarren inguruko kontuak bilduz eta denen eskura jarriz.”

Hitza bete eta, lehendabiziko hartaz gainera, beste bederatzire argitaratu ditugu. Hauxe duzu XAPOren hamargarren zenbakia. Tartean kontu asko izan ditugu hizpide, guztiak ere Goizuetarekin lotutakoak: herriko talde eta elkarten lanaren berri, herritarrek egindako bidaien kro-

nika, hizkuntzen inguruko lanak, Goizuetako euskara, Goizuetako toki-izenak, bertako kultura eta ohiturak, goizuetarrei egindako elkarrizketak, hainbat ospakizunen eta ekitaldiren inguruko kronikak, argazki zaharrak, sexuaren txokoa, Goizuetari buruzko jakingarriak, duela urte batzuk gertatutakoen errepasoa, goizuetarrek idatzitako ipuinak edo kolaborazioak, bitxikeriak, denbora-pasak...

Ikusten den moduan, kontu asko. Zer esan nahi duen horrek? Goizuetako herri bizi dela, eta hala izan dadin nahi dugula. Horregatik egiten dugu aldizkari hau, besteak beste. Euskara indartu nahi dugu, euskara erabili, euskaraz irakurri gure herriaren in-

guruko gauzak, eta hori herri bizi batean egin nahi dugu, festa egiten dakiena eta horrekin gozatzen duena, eta lan egiteko eta gauzak aurrera eramateko adorea ere baduena.

XAPOren zenbaki honetan ere ohiko edukiak aurkituko dituzu: Goizuetan egiten den hainbat gauzaren berri, herritarren iritziak eta esperientziak, gure hizkuntz altxorraren zipriztin batzuk, argazkiak...

Tartetxo atsegin bat izateko eta zure herria hobeki ezagutzeko balioko dizulakoan egin dugu, eta hala izatea espero dugu. Ea Goizuetako herriak beste hamar zenbaki edo gehiago ere egiteko bultzada eta arrazoiak ematen dizkigun.



1992an Goizuetak irabazi zuen Herriarteko Pilota txapelketa. Baita aurreko urtean ere. Ordukoa da argazki hau.



1992an ere zerri asko hil zituen Joxe Mari "Tximistak". Argazki hau Gorostingoa da.

ATZERA BEGIRA 1992

Xaporen beste zenbait zenbakitan egin dugun moduan, honetan ere atzera begira jarriko gara, duela urte batzuk gure herrian notizia izandakoak gogoratzeko. Honatx, oraingoan hona ekarri ditugunak:

- 1992ko ilbeltzean Nafarroako Gobernuak zioenez, herriko 385 etxebizitzetatik 107 hutsak zeuden. Ez zen berri ona, beraz, urteko Ttipi-ttaparen lehen zenbakiak ematen zuena.
- Joxe Julian Salaberria pilotari profesionala orduantxe hasia zen, hain zuzen, Nafarroako Aurrezki kutxan lanean, 24 urterekin.
- Eguberritan, Herrerako kartzelara egiten zen martxan, 25 goizuetarrek parte hartu omen zuten.
- 60 emakume elkartu zituen bertso afaria ospatu zen elkartearen 10ean. Egaña eta Lizaso ziren bertsoetara etorriak, eta goizeko 7etan oraindik kantuan ari omen ziren.
- Pilotako berriak ugari sortzen ziren orduan ere, ondorengo lerroetan ikusiko dugun bezala. Urteko lehenengo zapela Olaizola I-Berroetak eskuratu zuten errege egunean, jubenilen arteko Nafarroako finala Inda-Belokiri irabazita.
- Hernani eta Goizueta lotzen zituen autobus lineak zerbitzuak gutxitu zituen negu hartan. Udara begira ere kezka zegoen herrian, gauza jakina baitzen C. Albak ekainean linea uzteko asmoa zuela.
- Etxebizitzaren beharra zenbatekoa zen jakiteko inkesta egiteko erabakia hartu zuen Goizuetako Udalak. Espero bezalako erantzuna jasotzen bazen, babes ofizialeko etxeak eraikitzeke prozesua hasiko zuen udalak.
- Otsailaren 19an, bestalde, Luis Ignazio Loiarte guraso elkarteke presidente posturako aukeratu zuten Xalto eskolako gurasoek. Roke Tabernak bete zuen leku hori aurreko 2 urteetan.
- Orduantxe bildu zen Miel Joxe Lekuona alkatea

Nafarroako Gobernuak Industria Kontseilariarekin Asinco enpresaren egoera larriaz hitz egiteko, besteak beste.

- Martxoaren 7an ohiko batzar orokorra ospatu zuen Umore Ona elkarteak, eta aurreko 8 urteetan hainbat eztabaida sortu zuen gaiari bukaera eman zitzaion lehenengo 2 emakumeak bazkide zerrendan sartu zituenez, Pili Untxalo eta Amaia Huizi hain zuzen.
- Lehentxeago aipatutako etxebizitzaren inkestaren emaitzak ere orduan kaleratu ziren: 58 herritarrek etxea erosi nahi zutela erantzun zuten. Adin guztietakoak tartean, baina 20-30 ingurukoak gehien-gehienak.
- Udaberriarekin batera, pilota txapelketa antolatu zuen Umore Onak. Pilota gozoarekin jokatu beharrekoak lehenengo edizioa zuen 1992ko hau, eta herritarrek emandako erantzuna harritzeko modukoa izan zen, 30 bikotek eman baitzuten izena.
- Hiru hilabete beranduago, apirilaren 10ean, beste bertso afari bat egin zen herrian, emakumeek antolatua hau ere eta Telleria eta Maia bertsolariekin. Biharamunerako EGAN taldearen berbena antolatu zuen Gipuzkoako DYAK.
- Aspalditik ahoz aho zebilen zurrumurrua egiaztatuz, Don Bixente Orreagara eraman zuten apirilaren bukaeran. Herritar guztien agurra eta omenaldiak jaso zituen apez estimatuak, aurrena eskolako irakasle eta ikasleena, eta gero, herri bazkaria medio, Umore Ona gainezka bete zutenena. Apirilean bukatu zen baita ere Jean Irelandek, Bekoitxeko ingelesa, eman zuen eskulanetako ikastaroa. Hurrengo orrialdeko argazkiko emakume horiek izan ziren partaide bertan.
- Umore Ona elkarteak 4 ekitaldi arrakastatsu antolatu zituen maiatzean zehar: Mendi bizikletaren II. ibilaldia, XIV. Kross herrikoia eta truk eta museko txapelketak.
- Bertso eskolak, berriz, III. Bertso Paper lehiaketan saritutakoan berri eman zuen ekainaren 6an os-



Bekoetxeko Jeanek eskulanak erakutsi zizkien argazkiko emakume hauei.



Pili eta Amaia Umore Ona elkarteko lehen emakume bazkideak.

patutako jaialdian. Maite Ortigosa, Xabier Legarreta, Oihana Eskudero eta Eneritz Arozena izan ziren maila ezberdinetako irabazleak. 47 lan aurkeztu ziren. Amurizak, Sarasuak, Arozenak eta Silveirak kantatu zuten sari banaketa aurretik burutako jaialdian. 200 entzule elkartu ziren. Ordurako udalak kontratatuta zeuzkan Amabirjinitan plazan joko zuten berbena taldeak, Arkaitz, Basakabi, Bries, Izadi eta Gaubela, hain zuzen. 1.305.000 pezeta erabiliko zituen horretarako.

- Javier Huizi, "Alduntzin", istripuz hil zenetik hutsik zegoen udaletxeko zinegotzien aulki bat, eta Andoni Etxenike 23 urteko gazteak eskuratu zuen kargua maiatzaren 30eko plenoan.
- Ekainaren bukaera ere ailegatu zen, eta orduan, Lizarraren kontrako Nafarroako Herriarteko pilota txapelketaren finala jokatu zuen Goizuetak Labriten. Irabazi egin zuten gure ordezkariak txapeldunen zerrendan lehen postuan kokatuz 6 titulurekin. Ondoren Larraun agertzen zen bostekin. Aurreko bi urteetan ere Goizuetak eskuratu zuen zapela. Umore Onan ospatu zuten garaipena pilotariak 100 herritarrekin batera. Oparoa izan zen 1992ko uda herriko pilotarientzat. Aipatutakoaz gain, Juanxo Apezetxeak 22 urtetik azpikoentzako Munduko txapelketa jokatu zuen Cuban, eta Iñaki Lujanbiok Olinpiadak Bartzelonan. Xole eta Mirari Etxegiak be-

rriz, Nafarroako paleta txapelketaren finala galdu zuten Iruñean.

- Uztailean luzatu zuen Udalak babes zibileko taldea osatzeko boluntarioentzat deialdia. Jende mordoak animatuz gero, kamioiak, ambulantiak eta abar eskuratzeko harremanetan jarriko zen Herriko Etxea Nafarroako Gobernuarekin.
- Bien bitartean, Amabirjinak ailegatu ziren. Egitaraua, nola ez, beti bezala aberatsa. Aipagarria larunbata 15ean Gazte Asanbladak antolatuta Anje Duhaldek eman zuen kontzertua. Eguerdirako partidetan puntako pilotariak jokatu zuten 1992an ere, Apezetxeatarrek, Olaizola anaiek, Loiartek, Nagorek eta Otxandorenak esate baterako.
- Abuztuko oporren ondoren gogor ekin zion lanari udalak irailean. Babes ofizialeko etxeak eraikitzeke lurra behar zen eta terrenoen jabeekin elkarriketak hasi ziren hilabete horretan. Urteko aurrekontua ere orduantxe onartu zuen korporazioak, 133,5 milioikoa hain zuzen.
- Basahuntz ehiztarien elkarteak, berriz, Jabier Lujanbio hautatu zuen presidente.
- Irailaren 21ean mediku berria etorri zen herrira. Galiziarra zen eta ez zekien euskaraz. Udala eta Osasunbidea negoziatzen ari ziren arazoari irtenbidea bilatzeko.
- Urte honetako urrian paratu ziren herrian zaborra botatzeko kontenedoreak. Hauek jasotzeko kamioia eta

zabortegi berriaren zaintze lanetarako makina ere orduan erosi ziren. Iraultzat jotzen zituen T'tipi-ttapak aldaketa hauek.

- Zaharren eguna, berriz, hilaren 18an ospatu zen Umore Onan. 100 lagunetik gotti bildu ziren elkartean Joxe Lizasoren eta Agirreren bertsoek alaitutako bazkarian.
- Argia astekariak antolatutako asteburua ere paregabea suertatu zen. Puntako bertsolariak eta pilotariak, herri kirol jaialdiak eta Ortzi folk taldearen eta Txomin Artola eta Amaia Zubiria bikotearen kontzertuak borobildu zuten festa.
- Aipagarria da, gainera, Euskara Zerbitzuaren kanpainari erantzunez, 30 herritar matrikulatu zirela Euskaltegian eta beste hainbeste -denak emakumeak- EPAREN ikastaroetan.
- Zerri hiltzeari buruz Iruñetik etorritako aldaketen berri ematen zuen udalak azaroan T'tipi-ttapa bidez. Garaia izaki horretarako.
- Eskolan, aldiz, San Andres eguna ospatu zen Euzkitze eta Jon Sarasuaren bertso saioarekin.
- Abendua zen bestalde, Artikutzan ahuntz eta behien kontrako batidak eginen zirela abisatu zuenean Donostiako Udalak. Berehala eman zien Herriko Etxeak horren berri interesatu guztiei.
- Gazte Asanbladak, berriz, urte berriari gogor ekiteko asmoa zuen, EGAN taldearekin berbena iragartzen baitzuen ilbeltzaren 2rako.



erreportajea

Goizueta hilabete kulturala 2010

Azkeneko urteotan bezala, 2010eko hilabete kulturala ere oso arrakastatsua izan da. Behean agertzen dira egindako ekitaldien argazki batzuk.

Hasiera, azaroaren 11n, Jose Javier Etxeberriak eman zion. Egun horretan gure herriko etxe askori buruzko informazioa eman zigun eta bertako historiari buruz hitz egin zuen, herrian zehar egindako ibilaldira baten. Jende asko hurbildu zen herriko plaza-
ra (ibilaldira hasiera eman zitzaion lekua) eta gehiago ziren Yandenen,

bukaerako hamaiketakoan. *(1 eta 2 argazkiak)*

Egun berean, arratsaldeko 7,30etan, Edurne Agirrezabalak (Ikatzolakoak) “Sarean zintzilikatua” bakarriketa aurkeztu zuen udaletxeko ganbaran. Nahiko parra egiteko aukera izan genuen bertara azal dutako guztiok. *(3 eta 4 argazkiak)*

Azaroaren 12an Patziku Perurenak “Goizuetan bazen gizon bat” bere liburuaren aurkezpena egin zuen Udaletxeko ganbaran.


Eta hurrengo egunean, azaroaren

13an, Leitzako “Xagu” antzerki taldearen lana izan genuen ikusgai, “Agur Manhattan” antzezlanarekin. Hau ere udaletxeko ganbaran. *(6 argazkia)*

Azaroaren 19an Joseba Elizegik (Ixkibiko Yamanek) Nepalera egindako bere bidaiaren argazkien bilduma aurkeztu zigun, ganbaran. Eta bertan bere beste argazki batzuk ikusteko aukera ere izan genuen, erakusketa gisa.

Azaroaren 20ean haurrentzako ekitaldia izan zen, Asier Kudain magoarekin. *(5 argazkia)*





Azaroaren azkeneko larunbatean Goizuetako VII. artisau etaazienda feria ospatu zen. Azkeneko urteetan bezala goiz guztian azindak ikusgai izan genituen, aurtengoan “isarriko” frontoian, eta egun osoa ekitaldiz betea egon zen. (7, 8, 9 eta 10 argazkiak)

Azaroaren 30ean, eskolan “Xalto” eguna ospatu zen. Honetarako, urtero bezala, idatzizko bertsoen sari banaketa izan zen eta, bestalde, eskolako zaharrenek Iraia Okiñarekin tailer bat aurrera eramateko aukera izan zuten. (11 argazkia)

Nahiz eta azaro kulturala izan, aurtien abendura arte luzatu zen hila bete kulturala. Abenduaren 5ean Nafarroako II. mailako aizkolari finala eta EHko mutilen txing finala jokatu baitziren.





Orreagatik Compostelara oinez edonoren esku dagoen abentura

Argazkia Orreagakoa da.
Erromesak animatzeko paratua
izanen da kartel hau.

Nafarroako Orreagatik Galiziako Compostela bitarteko bidaia abentura bezala kalifikatzea gehiegikotzat jo lezake edonork. Nik, hala ere, mantendu egingen dut izenburuan idatzitakoa, horixe baita Santiagoko bidean dabilzanek sentitzen dutena, abentura bat bizitzen ari direlako sentsazioa alegia.

Oinez ibiltzeko osasun arazo larriarik ez duen edonoren esku dago bidaia zoragarri hau. Bakoitzaren denbora librearen eta ibiltzeko kapazitatearen arabera etapak antolatuta litezke aipatutako bi herrien arteko ia 800 kilometroak osatzeko. Palentzia eta Leon probintzietako salbuespen pare bat kenduta, hagitz kilometro gutxiren barrenean aurki litezke he-

rriak eta aterpetxeak. Beraz, norberak erabakitzen du egun bakoitzean zenbat kilometro egin.

Abiatu aurreko asteetan gero egingen dituzun neurri beretsuko trabesiak egitea oso komenigarria da, motxila bizkarrean hartuta gainera. Hortik aurrerako aholkuak sinpleak eta ezagunak dira: etapan perfilekin batera ibilbideko herrien eta aterpe-



txeen berri zehatza emanen duen gida on bat eskuratu. Eroskik badu ederra, internetetik doan jeitsi daiteke gainera; Aurretik erabilitako oinetakoak hartu bidaiarako. Gehienek botak janzten dituzte, baina nik zapatila on samar batzuekin egin nuen eta inolako arazorik gabe; eta azkenik, behar beharrezkoak diren gauzak bakarrik sartu motxilan. Bidaiariaren pisuaren %10etik pasatu gabe edozein kasutan. Beste aholku asko ere eman daitezke, baina aipatutako gidan edo interneten jaso daitezke Santiagoko Bideari buruz jakin beharrekoak.

Eskuratu litekeen guziaz irakurtzea eta aurrez bidea egindakoekin hitz egitea arrunt ona dela iruditzen zait. Nik horixe egin nuen behintzat. Nire esperientziatik ateratako gomendioarekin bukatuko dut atal hau: presarik gabe hartu bidaia. Askoz gehiago gozatuko duzu. Leonera heltzeaz nengoela hasi nintzen Compostelara ailegatu nintekeela sinesten. Etapa luzeagoak programatu nituen handik aurrera. Erdi presaka igaro nuen he-

rrialde hau, Leon, eta baita Galizia ere. Bidaiaren zati hori merezi bezala disfrutatu ez nuelako sentsazioa daukat geroztik. Dena den, horrek erremedio erreza du: berriz joan.

Xehetasun batzuk aipatuz, esan hildako herri asko ikusten direla Santiagoko Bidean (Burgosko probintzian batez ere), baina baita hiri eta herri ikusgarri askiak ere. Fletxa horiz markatutako bidetik atera eta gutxien-gutxienez paseotxoia eman beharrekoak dira Burgos eta Leon hiriburuak, Najera, Sto. Domingo de la Calzada, Astorga, Ponferrada... eta beste hainbat eta hainbat leku eta monumentu. Aipagarria da Leongo Hospital de Orbigo herri politean (zubia ikusgarria da) euskararen aztarnak begi-bistan daudela. Orbigo errekatik hartzen du izena herriak, eta plaza nagusiko panelean irakurri nuenez, gure hizkuntzako ur-bikotik heldu da Orbigo izena. Horrela gabiltzanean bestela baino sentiberago gaudelako edo, hunkitu egin ninduen aipamen horrek.

Bidaiaren hasierara joanez esan behar da, iazko apirilaren 15eko goizeko 6,30tan atera ginela Orreagako aterpetxetik bertan lo egin ondoren. Osteguna zen. Labeko Laxarok eta Yandeneke Patxik lagundu zidaten Lizarra arte. 4 egun. Nik Villamayor de Monjardinen egin nuen lo. Bihamunean Nafarroa utzi eta Logroño jo nuen. Hurrengo egunean Nafarroa utzi eta Logroño jo nuen. Gero Burgos, Palentzia, León, Lugo eta A Coruña probintziak zeharkatu nituen 23 egunez, maiatzaren 7ko goizeko 10:30etan Compostelako Obradoiro Plazako katedral ederrera ailegatu arte. Dexente emozionatu nintzen egia esan.

Milioika dira azken mila urte hauetan Compostelara oinez heldutakoak, baina norbera aurrenekoa balitz bezala ospatzen du erromes bakoitzak aileera hori.

Lau italiarrek, hiru espainiarrek, bi frantziarrek, indonesiar batek eta euskaldun batek, neronek, osatzen genuen taldea. Kasu batzuetan biz-



Gotzon Bikuña (Urretxindorrak) eta biok Leongo El Burgo Raneron. Atzean aterpetxea pezozko hormekin.

pahiru egun lehenago arte ez genuen elkar ezagutzen, baina une hartako besarkadak eta ondorengo gure arteko parranda giroa ikusita, sekula guziko lagun minak ginela ematen zuen. Horrelakoxeak dira bideak sortzen dituen harremanak eta konplizitateak.

Hau irakurtzen duenak pentsa dezake bidai hau arrosa kolorekoa dela bere osotasunean. Ez da egia. Sortu litezkeen osasun arazoez gain (oinetako babak eta tendinitisak batzuek ere) ez da batere atsegina aterpetxeetan lekua harrapatzeko presaka ibili behar izatea, eta behin ailegatuakoa, dutxatzeko ur berorik ez edukitzea. 40-60 lagunek gela berean lo egin behar izatea ere ez da atsegina erromes askorentzat. Bidaiari dirudunek aise egiten diete aurre oztopo hauei: 60 euro ordaindu eta hostalean lo egin. Dena den, arazoak momentuan sortzen eta gainditzen dira larriak ez badira behintzat. Compostelara heldutakoan ahazten dira denak, eta azkenean, zeure buruan

gelditzen den sentsazio orokorra da balio duena, eta hau, nire eta ezagutzen ditudan erromes guzien kasuan, ezin hobea da. Betirako iraungo duen oroimena seguru aski.

Bideko pertsonaiak

Nafarroako Villamayor de Monjardinen nire adintsuko eta 140 kilo inguruko gizon Valentziarra ezagutu nuen. 6 egun zeramatzan bidean eta oinak babaz josita zeuzkan. Aurretik prestatu ote zen galdetu nionean baietz erantzun zidan: "Etxeko zinta motordunean ibili naiz lehengo asteen hiru arratsaldetan". Biharamunean trena hartzeko asmoa zuen Logroñon.

Errioxako Azafran Mataroko 75 urteko amona erromesa eta biok afaldu genuen. Orreagatik hasia zen hau ere, 170 kilometro, eta egunean 10 kilometro inguru egiten zituen. Alargundu berria zen eta ez omen zuen Compostelara ailegatzeko inolako presarik.

Orain dela 40 urte Euskal Herrian

mitikoa zen Urretxindorrak taldeko abeslaria zen Gotzon Bikuñarekin batera egin nituen etapa mordoxka. Gizon atsegina eta jatorra. Geroztik egin dugu otordutxoren bat Umore Ona elkartean.

Azken lauzpabost etapetan elkartu ginen taldearen barrenean. Frantziako Armadako 65 urteko koronel erretiratu bat zegoen. Bere etxetik abiatu zen peregrinazioan eta Compostelara ailegatu zenean ia 3.000 kilometro osatu zituela esan zigun. Finisterre-raino jarraitzeko asmoa zuen estatu espainiarretik kanpoko erromes gehienek bezalaxe.


Mateo, 26 urteko italiarra, eta biok ordu asko igaro genituen elkarrekin. Filosofian lizentziatua zen eta ezker-tiar eta ekologista purrakatua. Euskal Herriko gatazkari buruzko haren jakin nahia ase ezina zen. Euskal hitz asko erakutsi nizkion. Behin esanez gero handik egunetara ere ederki oroitzen zen. Krixton tipoa.

Esteban Arotzena

Euskararen zabalera

Euskararen lurraldea aldatu egin da denborarekin. Historian zehar gertatu denaren berri ongi ezagutzen da XVI. mendetik hona, baina horren aurretik euskara noraino iristen zen frogatzea zaila da. Euskararen muga arrunt urruti iristen zela diote aditu batzuek, mapa honetan ikusten denez:

Iturria: Joseba Intxausti. *Euskara, Euskaldunon hizkuntza*



BAIALTZINIKIN...?

- ...1587. urtean Nafarroako 509 herrietatik 451 euskaldun zirela?
- ...Erdi Aroan Hueska eta Lleidako zenbait herri euskaldunak zirela?
- ...Ojakastro ibarreko (Errioxa) biztanleak XIII. mendean euskaraz mintzo zirela?
- ...1811. urtean Napoleonen armadak Iruñeko kaleetan ezarritako agiriak euskaraz ere bazirela?
- ...XVII, XVIII eta XIX. mendeetan euskal udal batzuek gutunak euskara hutsez idazten zizkiotela elkarri? Urruñia, Donibane Lohitzune eta Sarako udalek Hondarribia, Pasaia, Bera eta Baztango udalei bidalitako gutunek hala erakusten dute.
- ...euskarazko lehen astekaria Los Angeles (Kalifornia, EEBB) hirian kaleratu zela 1885. urtean?

GOIZUETA

"Leotik beitzuz"

Goizueta
Felix
Loiarteren
begietan

Goiko zubia Goi zubieta
GOIZUETA??, ura garbia,
Ura mehea, **URUMEA??**
Txukun mantendu
beharrekoak



LABADEROA ZUBI MUSU

Ilusio,
konpromiso
eta
laguntzarekin
berreskuratua,
eta beste
hainbat lan eta
proiektu
aurrera
eramateko
jarraitu
beharreko
eredua



OXEGUARDA URRUTINE

bat
ireki berria,
bestea, berriz,
laister itxiko
dena...
batek herriari
bizitasuna
emango dio,
besteak orain
arte hain ongi
egin duena



BIDEAK IREKITZEN

Gure arbasoek utzitako arrastoak markatzen dituzten
IBILBIDE MEGALITIKOAK; eta lehen arriskutsua zen
parajea ordezkatzeko duen ibilbide lasaia eta polita,
jarraipena merezi lukeen BIDE GORRIA



GAZTE JENDER

Leku guztietan hain ospe ona duen Goizuetako giroa ta **UMORE ONA**, horrela jarraitu ezkeru betirako izango duguna!



LAGUNARTEA,

Ttikitatik landu beharreko balorea,
Nahiz azaleko kolore edo gerriko kolore
diferentea izan, denak elkarrekin jolastu,
jokatu eta disfrutatzeko lagunarterik
galdu gabe eta berriak eginez



ETORKIZUNA

Baietz gure arrastoa jarraitu!!!



ETXE BERRIAK

Gazte jendea herrian gelditzea nahi badugu, bultzatu beharrekoa

Guraso elkarteak



Hasiera

1977an eman ziren lehen pausoak. Ikasketa batzordean aipatu zen, lehenengo aldiz, elkarteak osatzeko asmoan zela Goizuetako eta Aranoko guraso eta lagun talde bat; ideia horrek bertan harrera ona izan zuenez, aurrera segitzea erabaki zen. “Gurasoak” izena jarri zitzaion elkarteari eta gaur egun ere izen hori darama.

Elkarte guztiek bezala guraso elkarteak ere estatutu batzuk behar

zituenez, Larraintzar ikastolakoak eredu gisa hartu eta dena martxan jarri zen. 10 bat lagunek komisia sortu zuten, bere lehendakari, idazkari, diruzain eta bokalekin. Lanean hasia besterik ez zen falta!

Euskara

Garai hartan eskolako maixu-andereño gehienak erdalduak izanik, zerbait egin beharra zegoen euskaldunak bertara ekartzeko. Informazio

guztia bilatu ondoren, lehen pausoak ematen hasi ziren, eta euskararen alde apustua egin zen. Aitortu behar da lan ikaragarria egin zuela guraso eta lagun talde horrek, gaur egun, eskolan, hizkuntz aldetik daukaguna izateko.

Ume ttikientzat “ikastola” sortu zen, andereño batekin. Eta eskolan bi andereño euskaldun sartzea lortu zen. Gaur egun ezingo litzateke modu horretan irakaslerik sartu, baina garai hartan desberdin izaten ziren



gauzak, eta ahalegin handiak egin ondotik lortu egin zen. Haien soldata guraso elkartearen eskutik zihoan eta, diru sarrera bat behar zenez, gaur egun “ikastola taberna” izenaz ezagutzen duguna sortu zuten. Bertan lortzen zen diruarekin eta gurasoen kuotarekin hiru andereño, garbitzaila eta bestelako gastuak ordaintzen ziren. Gaur egun ikastola taberna erakunde gehiagoren artean gestio-natzen da eta dirua, gehienbat, herri-ko festak antolatzeke erabiltzen da.

Goxali

2001-02 ikasturtean, liburutegi baten beharra zegoenez, Goxali (GOizueta-ko XAlto Lliburutegia) sortu zen. Bertan irakasle eskolako praktiketa-ko ikasle bat hasi zen lanean; hasieran irakurketa lekua baldin bazen ere, gaur egun Goxaliren prestazioak

zabaldtu egin dira, eta astean bitan zenbait tailer antolatzen dira, bi laguntzailerekin. Astelehenetan gazte-txoenak hurbiltzen dira, eta ostirale-tan zahartxeagoak. Hilabetearen behin haurtxoentzat eta haien gurasoentzat saio berezia ere izaten da, begirale batekin, jokoen bitartez haien arteko harremanak estutzeko.

Ekitaldiak urte osoan zehar

Urte osoan zehar ekitaldi ugari antolatzen ditu elkarteak, betiere herri-ko hainbat erakunderekin elkarlanean: Goxali, herriko ferian parte hartzea, Olentzerori ongi etorria, erregeen kabalgata, guraso eskolako hitzaldiak, inauteritako astelehena, topaketa, udako ikastaroak eta festetako ekitaldi batzuk.

Aipatu beharrekoa da “topaketa” Leitza, Areso eta Goizueta artean antolatzen den eguna dela, betiere helburu jakin batekin: herrien eta herritarren arteko harremanak hobetzea. Aitzakia horrekin festa ttiki bat antolatzen da.

2010ean, udalak guraso elkarteari eman zion festei hasiera eman zion itxaferoa botatzeko ohorea, egiten duen lan baliotsua goraipatuz. Pozez eta ilusioz prestatu ziren bi bertso, egun alaitsu horiei hasiera emateko.

Gazte txokoa

Lehengo urtean ere proiektu berri bati hasiera eman zitzaion: Gazte-txokoa. 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Lokal bat egokitu da haientzat, komisio bat dago atzetik (gazteak, gurasoak eta

erreportajea



gazte asanblada elkarlanean), baina helburuetako bat haiek ardurak hartzea da, eta baita harremanak modu dibertigarri batean indartzea ere.

Gazte-txokoa momentuz aste-buruetan irekitzen da eta hauek dira bertan egiten diren ekintzetako batzuk: mahai jokoak, dardoak, pin-pona (lehiaketak antolatzen dira) grafiti tailerrak, mendira irteerak, zine emanaldiak, eta baita denbora librearen ere, haien gauzetarako.

Guraso elkartetik, eskerrak ematea besterik ez zaigu falta: elkartean egon diren guraso guztiei, eta laguntzera hurbiltzen den jendeari. Bakoitzaren ahalegina baliotsua izan delako.

IZAN ZIRELAKO GARA.





elkarrizketa



Horma-irudi bat egiten.

Goizuetako Gazte Asanblada 20 urteko ibilbidea

Goizuetako Gazte Asanbladak 20 urte betetzen dituela eta, hasierako momentu haietan buru-belarri ibili ziren Igor Elizegi eta Axier Lujanbio Pinparekin egin dugu zita:

• **Zuek izan zineten Goizuetako gazte mugimendua martxan jarri zenute-**

nak, zer dela eta somatu zenuten Gazte Asanblada baten beharra?

Igor: Ikusten genuen herrian ez zela guretzat, gure moduko ezer antolatzen, hori izan zen hasteko arrazoia. Gazteok parrandara Hernanira edo kanpora joan behar izaten genuen eta bertan zerbait egin ezkerro, guretzat askoz hobe.

Gainera, leku guztietan Gazte Asanbladak sortzen ari zirela somatzen zenez, berotzen hasiak ginen. Kanpoan ikasten genuen eta Añorgako lagunek beraien abenturak kontatzen zizkiguten eta gure artean: "haiek gauza battuk hau eramateko, gure izain gittuk ba!".

Lehendabiziko gauza antolatu genuena, Rock kontzertua izan zen, ordura arte, Goizuetan inoiz izan ez

zena. Gainera, garai haietan musikari guztiak ezagutzen genituen eta lagunartean bezala, Kanka, Pikutara eta Kearra ekarri genituen. Goiko frontoian ospatu genuen kontzertua eta jende asko etorri zen.

• Nolakoa izan zen hasiera?

Pinpa: Lehendabiziko bilerak bar Maritxun egiten genituen, ez baigenuen lokalik, eta gero dantzetako gelara joan ginen. Urte bat inguru pasa zen ekintzak antolatzen hasi ginenetik, Udalarari bilerak egiteko leku baten beharra genuela azaldu genion arte.

Egon ginen lehendabiziko lekua, Udaletxe azpia izan zen. Hura ere guk geuk moldatu genuen. Gogoratzen naiz morez pintatutako pareta haiekin...

Hasieran lokala igandeetan bilerak egiteko bakarrik erabiltzen genuen, gero eguraldi txarrarekin igandeetan joaten ginen, gero txarrarekin larunbatetan, gero hobearekin ostiraletan eta azkenean astelehenetik igandera joaten ginen.

• Zenbat lagun biltzen zineten hasieran?

Igor: Hogeita hamar inguru esango nuke! 15 urtetik 35 urte bitartekoak biltzen ginen. Kuadrila desberdinetako jendea zegoen, batzuk hasierako kontzertuetan mugitzen ziren, baina denborarekin... badakizu! Beste batzuk, berriz, gu baino zaharragoak, laguntzen ziguten obretan, kontzertuak antolatzerakoan... baina guri protagonismoa kendu gabe.

Andoni Kano, Iñigo, Ansa

Herri mailan jendea asko mugitu zen. Udalaren aldetik ez dugu inolako trabarik topatu, guztiz kontrakoa, beti laguntzeko prest, nahiz eta kostatzen zitzaigun udaletxera joatea hitz egitera. Guretzat pauso haundia zen dudak alkateari planteatzea!

• Goizuetak Gaztetxe bat baino gehiago izan ditu. Nondik nora ibili zarete?

Igor: Lehendabiziko gaztetxea udaletxe azpian zegoen eta Miel Joxe,



Lokal zaharra.



Perkusio ikastaroa.

orduan alkate, etorri zen esanez ofizinak egin behar zituztela bertan. Ez gintuzten kalera bidali nahi eta bi aukera eskaini zizkiguten: bata medikuaren etxea eta bestea, Tifanitxo. Tifanitxo okerrago zegoen, baina lekuri politena ere bai.

Lur guztia ittottiez betea zegoen. Udaletxea lurra konpontzeko eskaini zen, baina guk dirulaguntza eman eta guk konponduko genuela esan genion. Azkenean, ordea, dirua bagenuen eta gerorrek aurreratu

genuen, dirulaguntza beharrik gabe. Izan ere, autogestionatzea bazen gure helburua, zein bide hori baino hobe...

Pinpa: Orain, hilabete bukaeran haurrentzat txokolatadak antolatzen dituzte. Joan nintzen joan den hilean eta lurra ikustean, hori mina! Dena petatxuz josia, tabla puskak jarrita... Guk jarri genuenean ikasleak ginen, ez genekien nola egiten zen, baina bueno, saiatur lortu genuen. Min haundia eman zidan, bai.



Aste Santuak.
Umekin jolasak 2010.

Kuriosidade bezela, kalimotxoa egiteko baldeak erabiltzen genituen eta gero enputoarekin botiletara sartu berriz. Baina ona ote zegoen jakiteko probatu beharra zegoen eta han ibiltzen ginen nahasketa egitea noiz tokatuko zain. Halaxe bukatzen genuen...

• **Leku guztietan bezala, zuen artean ere egongo ziren disputak, ezta?**

Pinpa: jajaja. Orain kuadrilan dauzkiu Pili, Leire ta horiek denak, baina eduki ditugu gure haserreak; bileretan gehiena hoiekin txokatzen genuen.



Arantza. Mendi martxa.

• **Zuek sortutako zerbait izan zen Gaztetxea. Nolakoa izan zen agurra? Nazkatuta irten zineten, nekatuta...**

Pinpa: Ez, ez, nazkatuta ez. Ikusten duzu belaunaldi berriak sartzen ari direla... lanean hasita dirua poltsikoan eta tabernan, sozidadean gehiago egoten zara gaztetxean baino... azkenean jende berriari bidea utzi behar zaio. Guk gustura jarraituko genuke bertan, baina jende berria sartzen da gusto desberdinekin, martxa desberdinekin... guri gertatu zitzaiguna nolabait.

Nahigabe uzten da, pixkanaka. Ez da zerbait planteatua. Horrela behar du, belaunaldi berriei bidea utzi behar zaie, laguntzen eta apoiatzen jarraitu arren. Azkenean, izenak berak esaten du, Gaztetxea...

• **Nola ikusten duzue Gaztetxea?**

Igor: Lokal aldetik desastre xamar dagoela esango nuke, baina bestela, lan asko egiten dute. Gu baino hobeko antolatzen dira eta hori ekintzetan islatzen da.

Pinpa: Baina baliabide gehiago ere badituzte. Diru gehiago daukate kontrolatzeko eta horrek edozer antolatzeko bidea asko errazten du. Gogoratzen naiz pin-pon txapelketa baterako entziklopedian neurriak eta arauak nola ziren ikusi ondoren, tabla bat ekarri genuela. Gerorrek moztu genuen eta pintatu. Saria, berriz, eskolako karpinteria tailerrean egin nuen. Pilotak puskatzen zirenean, kolarekin itsasten genituen... hura izan zen antolatu genuen lehen txapelketa.

Igor: Nahiz eta guk baliabide ekonomiko gutxi izan esango nuke nahiko ongi jakin genuela manejatzen. Izan ere, azpimarratzekoa da, Goizuetako lehen rock kontzertua guk antolatua dela eta baita potenteena ere! Festetan antolatu genituen kontzertuetan, dena arriskatu genuen. Tapia ta Leturia, Dani eta Ainara, Eskixu, Def Con Dos, Su ta Gar eta saio hasieran Patxi eta Irune. 3.000 sarrera saldu ziren, Goizueta batentzat ikaragarria.

Iruditzen zait, kontzertu asko egin direla geroztik, baina hainbeste jende ekarri duena ezetz. Baina haiek garai onak ziren kontzertuentzako. Gehienoi lana egitea tokatu zitzaigun, gogorra izan zen, baina ongi pasa genuen.



“Guk lan zikina ta zuek lan diploma-
tikoa” egiten genuela esaten digute.
Beraiek atzeko lana, ikusten ez zena,
eta guk berriz jendaurrekoa.

Behin Mamutera joan ginen eros-
ketak egitera eta bideo bat ikusi ge-
nuen krixton ofertan, “hau Gaztetxera
eraman bar diu!”. Boltsiluan genuen
azkeneko monedakin pagatu eta Gaz-
tetxera iristerakoan “Ze okurrittu zizte
holako gastua ittea!”. Krixton pitotea
montatu zen.

Guk, behar genuen zerbait ikusiz
gero, erosi eta lixto. Beraiek preka-
bituagoak ziren, gehiago pentsatzen
zuten gauzak egin baino lehen. Gu
gehiago berotzen ginen, baina probetxu

ederra atera genion bideoari, ostiralero
pelikulak ikusten hasi baikin.

• **Aurten hogeiei urte. Herriar
guztientzat ekintza asko
antolatu badituzte ere, data
garrantzitsu bat: azaroak 12,
jaialdi haundia. Parte hartuko
duzue, ezta?**

Igor: Dudarik gabe. Guk sortuta-
ko gauza bat hogeiei urtez bizitzea,
izugarria da guretzat. Ez genekien
zenbat iraungo zuen eta ikustea mar-
txak jarraitu duela, gazteak bildu
eta herriarentzat ekintzak antolatuz,
pozgarria da.

Pinpa: Zapela kentzekoa da! Gaine-
ra, ez dira estankatuta geratu. Geroz
eta ekitaldi desberdinagoak egiten di-
tuzte, berritzaileak... Herri mailan asko
mugitzen dira. Pentsatzen dut, lehengo
garaian bezela ibiliko garela.

Gainera, 15. urteurrenean Gaztetxe
-kideen bazkaria egin zen eta giro
ederrean bildu ginen. Baina aurten,
herri bazkaria egiteko asmoa dela
uste dut eta orduan ibiltzen zen jende
gehiago azaltzeak poza emango lidake.
Herriar askok lagundu izan dio Gazte
Asanbladari, batzuk indar gehiago-
rekin eta besteak ez hainbesterekin,
baina guztiok elkarrekin ospatzea
latza izango da.

BAIETZ ASMATU!

Goizuetan euskara bizirik dago. Eta bizirik dagoena aldatu egiten omen da, baita hizkuntza ere. Aldaketa horretan, hitz batzuek esanahia aldatzen dute, eta beste batzuk ahaztu egiten zaizkigu. Zein oroitzen da ondoren heldu diren hitzez? Ea beren esanahia asmatzeko gai zaren!

1. baldimetan

- a. belar-metaren puntan egotea
- b. zerbait gertatzea nahi dugula adierazteko erabiltzen den esaera, ojala!
- c. helmugara ailegatzeko gutxi falta zaionari esaten zaio

2. berdantza

- a. berdexka dena
- b. herenegun gaua
- c. dantza errepikakorra, aspergarria

3. heriosur

- a. Goizueta bezalako herria, ur asko duena, oso eurtsua
- b. herioren sudurra, norbait oso gaixo dagoenean ikusi ohi dela esaten dena
- c. ahalegin handian edo larritasunez ibiltzea

4. gaurgero

- a. 'dagoeneko' esateko erabiltzen den hitza
- b. lana noizko bukatuko duzun ez dakizunean erantzuten dena
- c. arratsaldea

5. irazki

- a. iragarkia, anuntzioa
- b. iratzearekin egiten den infusioa
- c. iragazki, koladorea

6. limeta

- a. botila
- b. Gaur egungo lijaren antzeko tresna
- c. Limoizko edaria, limonada

7. pazia

- a. pagoaren hazia
- b. eltzea, pertza
- c. pazientzia gutxi zuenari ereiteko esaten zitzaion hazia

8. txiñalka

- a. txingekin egiten zen joku bat da
- b. Txino auzoan ateratzen den belar mota
- c. eskarpiñen atzeko alde barruraka sartuta eramateari esaten zaio

9. txisperoa

- a. lehengo metxeroaren ordezkoiari deitzeko erabiltzen zen hitza
- b. pixa normalean baino beroago botarazten zuen gaixotasuna
- c. txispa handiko pertsona, ateraldi eroak dituen

10. zakela

- a. sabela
- b. sakela, bolsilua
- c. zakila lubrikatzeko antzinako gela

11. zipota

- a. pertsona gaiztoa
- b. kortxua
- c. basoetan bizi omen den ipotxa

12. burubilla, buruilla

- a. iraila
b. buruko ilea
c. borobila

13. loraila

- a.** maiatza
b. martxoa
c. horixka den lore mota bat

14. perrilla

- a. perretxikoen hilabetea
- b. gurpila
- c. perdigoiak gordetzeko kutxa

15. garagarrilla

- a. ekaina
- b. garagardo gaindosiz hildakoa
- c. garagarra xehetzeko erabiltzen zen harria

16. galtzarbea

- a. magala
- b. besazpia
- c. galtzen azpiko arropa

Hitzak ahazten ditugu, baina sortu ere egin ditzakegu. Azpiko hau esamolde berri xamar baten adibidea da, Goizuetako gazteei entzuna. Ezagutzen zenuen?

jon trabolta: “jon, trago ta buelta”, parranda luzerako asmorik ez denean erabiltzen da.

ESANAHIAK LOTZEN

Goizutako hitza al da hori? Euskara batukoa? Batzuetan, gure aiton-amonek erabiltzen zituzten hitzak ez zaizkigu beraiegangandik etorri, euskara batutik baizik. Eta euskara batuko hitz arraroak egiten zaizkigunak, gure aurrekoek erabiltzen zituzten. Ondorengo hitz batzuekin hala gertatu zaigu, baina ez denekin. Hitz bakoitza bere esanahiarekin lotzea da hemengo zeregi-na.

abaroa
adokia
arraka
kandua
kanita
katazka
kikara
korokoa
manyarea, manyaera
morrotu
txoil
txikerdi
txikia
ponpollo
tantar
xahor
yaka
zipatu
zinga-zinga
txurikiña ta masal-hostoa

erabat
lana
aziendak jateko lekua
kaskagogorkeria
katilua
zamarra
litro laurdena
bultoa
edatean ateratzen den hotsa
estropezu egin
itzala
exkaxa
adabakia, petatxua
borobila
lanbroa
litro baten zortzirena
arrastaka
zuhaitzei adarrak moztu
ganibeta, labana
garrantzirik gabekoa

SOLUZIOIA

Esanahioch lotzen: abarova = izala, adobika = adabakia, petakuxa, arrakaxa = arrastakaxa, kanduxa = landuxa, kantila = gantidutxi, labana, kitaraxa = katala, korokaxa = borobilla, manyayaxa = manyayara, manyayara = azendak jateko lekua, morrotu = zuhaitzetik adarrak moztu, txoil = erabat, txikierdi = litro baten zortizirena, txikila = litro laurdena, ponpodi = buloa, lantera = kasagagorzeria, xahor = exkaxa, yakaxa = zamarra, txikita = litro, zingaxingaxa = edatean aterazen den hotsa, txurkitila la masal-hostoa = garrantzirik gabekoa

Boletz osmolez: 1b, 2b, 3c, 4a, 5c, 6a, 7b, 8c, 9a, 10b, 11b, 12a, 13a, 14a, 15a, 16b

ezetz asmatu

EZETZ ASMATU

Ezetz asmatu da atal honen izena, baina ziur gaude argazkietan agertzen diren horietako batzuk gutxienez ezagutuko dituzula. Denak ez? Lasai, ondokoari galdetu edo, gazte samarra baldin bazara, zu baino zaharxeagoa den norbaiti.

Urteen joan-etorria nabaritzen da, baina, hala ere, denok gordetzen dugu zer edo zer gure lehengo itxuratik edo plantatik. Zer da honako hau edo honako hura ezagutzen lagundu dizuna?



Ipuiñ erotikoa

Nire izena Kattalin da. Ez naiz neska oso abentura zalea, baina ikasketak bukatu eta bidaia bat egitea pentsatu nuen. Nere beldur guztiak alde batera utzita, hegazkina hartu eta hasi zen nere abentura.

Hegazkinean Irene ezagutu nuen, oso neska ausarta eta alaia, eta segituan konektatu genuen. Nahiko denbora izan genuen hegazkinan elkarri gure planak kontatzeko, eta leku berdiner a gindoazenez, esperientzia hau elkarrekin bizi behar genuela, erabaki genuen. Bi neska gazte mundua jan nahian!!

Etxe ttiki eta umil bat alokatu genuen. Egunak pasa ahala gure harremana estutzen zihoan, eta konplizitate haundia genuen. Ustekabean hilabeteak aurrera zihoazten, eta horietako batean Nikolas gurutzatu zen gure bidean, eta gure gida izateko eskaini zuen bere burua. Nola demontre esango genion ba, halako mutil puxkari ezetz!!

Mutil kirolaria zen, gorputz ikaragarrikoa..., begiak...ilargi gabeko gaua

bezelakoak, eta azentoa... hotzikara etortzen zait gogoratzen dudanean!!

Inguruko txoko guztiak ezagutu genituen eta ederki moldatu ginen, haserre batzuk kenduta, noski!!

Gure bidaiaren azken eguna iritsi zen eta festa txiki bat antolatu genuen agur modura; musika, janaria, edaria, jendea eta giro bikaina. Orduak pasa ahala nekatu xamarra nengoen, eta ohean sartu nintzen. Geroxeago Irene etorri zen eta nere ondoan etzan zen. Nere kamixetaren azpitik esku bero-bero bat nabaritu nuen. Titiak laztantzen hasi zen eta ni ere bera laztantzen hasi nintzen; segidan, muxuak etorri ziren, pasioz, arnasa hartzeko denborarik gabe. Gelan Nikolas sartu zen eta guri begira geratu zen. Gu aldiz ez ginen batere lotsatu eta muxukatzen segitu genuen, titiak miazkatzen. Galtzetan nabaritzen zitzaion bere zakil indartsua, hura desio nuen baina plazer haundia ematen zidan Irenek. Zakilarekin jolasean hasi zen, gora eta behera, ezin nion

begirada mugimendu hari kendu eta Ireneri ezetzik esan; ongi aski zekien nola ni ukittu. Nikolasi gonbitea egin nion guregana elkartzeko. Nahaste handia zegoen, eskuak, hankak, ahoak, mingainak, baina gozamina zentzu guztietan.

Sexu librearen usaina zegoen gela ttiki hartan, konplexurik gabe, naturaltasun eta, zergatik ez, maitasun ikaragarriarekin.

Biak borrokan zakila miazkatu nahian, elkar laztantzen, bakarrik ukitzen, ez zegoen pentsatzeko denborarik, sentitu besterik ez.

Nork bere burua gozatu zuen eta hiruok batean orgasmoa lortu genuen. Arnasestuka besarkada goxo batean lo hartu genuen.

Esnatutakoan Nikolas ez zegoen gure artean eta gu esnatu, maletak prestatu, eta etxera bueltatu ginen.

Gela hartan bizi genuena ahaztezina izan zen eta berriz noiz pasako den irrikaz gaude Irene eta ni.

Norbait apuntatzen al da?



Galdera laburra herritarrei

Zenbat herrikin egiten do Goizutak muga?



Axier Lujanbio
• 11



Xumar Bakero
• 11



Miren Salaberria
• 11



Igor Elizegi
• 13



Dabid Loarte
• 11



Fermin Narbarte
• 12




Alex Salaberria
• 12



Igor Apezetxea
• 13



Daniel Oyarzabal
• 11



Hodei Lujanbio:
• 13



Xabier Perurena
• 11



Miel Joxe Lekuona
• 12



Esteban Irurzun
• 12



ZURE TXANDA

Jose M^o Narbarte



Zenbat urtekin atera zinan mozerro lehenengo aldiz?

19 urtekin

Zer dira zuretzat inauterik?

Izandu dian juergaik onenak.

Zenbat mozerro zinaten zure lehen aldian?

11 mozerro eta kordionista.

Emakumezkoak zenbat?

Geldittu nitzan urten 3 edo 4 atera zian.

Oain dela 32 urte gutxi gorabehera.

Ze aldatuko zenikete inauteriri?

Faltan botzen duana da, zaidantza bukatu ondoren zaia aurpegia garbitzera yoten zenen mozerro guzik plazan dantzatzun gunula gaineko guzikin.

Dantza ere aldatzen ari da, lehen zaia ez zen minutu bat ere gelditzen. Ziripurdia yende asko zenen bakarra egiten zen, bestela makurtu eta makilan golpea hartu bakarra egiten zen.

Zenbat urtetan ateri za zagia?

Hogei bat urte.

Berriz atereko al zinake?

Ez. Hogei urte banittuke bai.

Neska asko pintatzen al zinittun?

Bai, balkoiatan zaudenak eta dena.

Laster asko eginta?

Geldittu gabe.

Imaginatzen altzo Goizuta inauteri gabe?

Ez, nola ba. Pasatu zen, urte baten yendeik elkartu ez eta herrin bakarra atere ginala, hala ere azkenen hamar bat elkartu ginan.

Ekaitz Narbarte



Zenbat urtekin atera zinan mozerro lehenengo aldiz?

16 urtekin

Zer dira zuretzat inauterik?

Goizutako tradizio bat eta herriko juerga.

Zenbat mozerro zinaten zure lehen aldian?

50 inguru..

Emakumezkoak zenbat?

Erdik miño gutxixio.

Ze aldatuko zenikete inauteriri?

Deusez.

Aurtengo zaidantza diferenteoa izando al da?

Bai, aurtengoa aspaldiko partez zaidantza txukun eta serio bat egin da.

Zenbat urtetan ateri za zagia?

Hiru urtetan.

Berriz atereko al zinake?

Dudik gabe.

Neska asko pintatzen al ttizo?

Al den gehiena.

Laster asko eginta?

Al den gutxina.

Imaginatzen altzo Goizuta inauteri gabe?

Ez, gaur eungo gaztek inauterik oso gustokok ttu.